



BOLETÍN Nº 31

Red de Acogida Ciudadana / Hiritarron Harrera-Sarea 2020ko maiatzaren 3a, igandea

Sekulako esperientzia beldurrak bizitzea, ezta?

Horixe esan nahi du esklabo izateak

Roy, Blade Runner

Beldurra. Gaur, inoiz baino gehiago, beldurrak mundua oso-osorik hartu du, eta gizarte osoari eragiten dio. Beldurrez gaude pandemiak osasuna kenduko ote digun, beldurrez maite ditugunak galduko ote ditugun, beldurrez lanik gabe geratuko ote garen ondorio ekonomikoak direla-eta... Benetako beldurra, benetako arazoengatik. Bada, horixe da, hain zuzen, gure hirietako **pertsona bereziki zaurgarri askok egunero bizi duten errealitatea**. Hala zen pandemiaren aurretik, hala da orain, eta hala izango da itxialdiaren ondoren ere.

Harrera Sareak bere ardurapean dituen pertsonen taldean, **kanporatuak izateko beldurra** dute, bizileku-baimenik ez izateagatik; **beldurra bizimodu txarrari**, non lo egin edo zer jan ez izateagatik; **beldurra** poliziaren **kontrolak eta beharbada tratu txarrak** jasateari, hamaikaxotan bezala; beldurra gaizkiletzat hartuko ote dituen jenderik gehienak; **beldurra etorkizunari**, ez baitute ikusten nola aurkitu lan egiteko eta beren familiei dirua bidaltzeko aukerarik; beldurra beren senideren bat hilko ote den haren ondoan egon ezinik.

Boluntariora. Harrera Sareak esku hartzeko aukera ematen du egoera hori aldatzeko. Hona hemen gure oinarrizko planteamendua: **eskubide berak eta tratu berdina exijitzea pertsona guztientzat**. Eta, horrekin batera, erantzunik ez duten **oinarrizko gabeziak estaltzen aritzen gara**. Bi alderdi horiek dira sarearen bereizgarriak, eta horretan **parte hartzeko gonbita egiten dizuegu**.

Uko egiten diogu onartzeari gizarte honetan bi kategoriatako pertsonak daudela, 1. eta 2. Kategoriakoak. Eta ez gurasokeriaz, baizik eta **gure balioen arabera jokatu nahi dugulako**, ez baitatoz bat halako bidegabekeriak onartzen dituen gizarte batekin. Ezin dugulako beste alde batera begiratu gure artean bidegabekeriok egiten direnean. Ez dugulako onartzen orain arte ohikoa zena: bazterrean uztea berez "ez-pertsonatzat" hartzen ditugunak. **Arrazakeriak eta xenofobiak lehen pausoak ematen dituztelako "beste" "ezberdintzat" hartzen hasten garenetik**.

Instituzioei, diskriminaziorik gabeko tratua exijitzen diegu, eta beharrean diren pertsonen oinarrizko premiak betetzea. Ez zaizkigu aski iruditzen esku-hartze partzialak, behar batzuk betetzen dituztenak baina pertsona asko kanpoan uzten dituztenak. Entzuten diegu nola komunikabideetan behin eta berriz jakinarazten dituzten hartu dituzten neurriak. Eta badakigu ez dutela atsegin guk kanpoan geratzen diren horiek gogoraraztea. Baina familia bakar bat kale gorrian geratzen den artean, ez dugu etsiko, hori salatzen jarraituko dugu.

Eta, aldi berean, **gure lankidetzak eskaintzen diegu** instituzioei. Ez dugu dena espero haiengandik. Ez dugu politikari profesionalen eskuetan utzi nahi gure erantzukizuna. **Gizarte zibilak eginkizun berezia du**, oinarrizko behar materialez harago, beharrean direnei entzuten, lagun egiten, babes-sareak ehuntzen, behar den guztia egiten gizarte honetako parte sentitu



BOLETÍN Nº 31

Red de Acogida Ciudadana / Hiritarron Harrera-Sarea

ahal daitezen. Begiratu mesfidatiak eta tratu desberdina jasotzera ohituta daudenentzat, funtsezkoa da gure babesa. **Horretara deitzen dizuegu.**

Giza harremanak. Sarearen deiari **erantzun dioten boluntarioen** parte hartzea, **berrogeita hamarren bat** lagun, elikagaiak banatzera mugatuta dago egunotan, itxialdia dela eta. Baina **ondorengo eginkizunak prestatu** behar ditugu, asko izango baitira eta esku asko beharko baitituzte. Eginkizun horietan, **pertsonetikiko harreman zuzena izango da lehena.** Hori da bidea, babesa eta ikastea bi norabideetan gerta daitezen. **Sarearen boluntarioria osatzera animatu nahi zaituztegu.**

Mobilizazioa. Administrazioa ez dadin berriro itzul itxialdi aurrean zeramatzan politiketara, ehunka pertsona muturreko egoera zaurgarrian utziz, beharrezkoa da jende gehiagok babestea **Ez itzazue kaleratu manifestua.** Gaur arte, 47 erakundek eta 667 pertsonak egin dute bat harekin. Askoz gehiago izan gaitezke. **Zabal dezazun eskatzen dizugu,** jende gehiago ohar dadin egoera honetaz eta laguntza gehiago lor dezagun. Zurea ere espero dugu, hemen sinatuta, <https://cutt.ly/OtKaVgj>, eta zuk zeure bidez zabaldua.

Burokrazia. Gehienetan goresgarria den lanarekin batera, aurkitu izan ditugu zenbait jarrera funtzionarioen artean, non egoera "normaletan" bai baina itxialdi honetan zentzurik ez duten jarduera-protokolo jakin batzuei jarraitzen baitiete. Egoera kafkiar samar bat da ohikoenetakoa. **Badira lagun batzuk hiri batean erroldatuta daudenak baina une hauetan beste batean bizi direnak.** Ez gara aletzen hasiko zenbat zailtasun dituzten erroldan agertzeko bizitoki egonkorra izateko mila oztopo dituzten pertsonak. Egoera hori askotan gertatzen da. Hala, **erroldatuta dauden hirian ezin dute laguntzarik jaso, "han bizi ez direlako", eta bizi diren hirian ere ez, "han erroldatuta ez daudelako".** Ondorioz, ukatu egiten zaie laguntza oinarritzko eta behar-beharrezko bat, elikagaiena lehenik, eta baita alokairua ordaintzekoa ere. "Funtzionario espiritu" hori agerian geratzen da auzi horiei eta beste batzuei ekiteko asteak pasatzen direnean, baita batzuetan irizpideak malgutzeko prest badaude ere.

Janari-beharrei dagokienez, instituzioek jende asko uzten dute kanpoan oraindik ere. **Sareak berak bakarrik, aste honetan 120 pertsonari eta 17 familiari eman dizkie elikagaiak, hau da, 188 laguni guztira.**

Diru-ekarpen solidarioa. 168 lagunek emandako dirua 12.044 €-koa izan da. Gastuak 10.786,80 €-koak dira, eta hor sartzen dira elikagaiak, dutxak, sakelakoak, mikrouhinak, arropa, botikak, gasolina, butanoa, alokairuen fidantza aurreratzea eta beste. **Saldoa 1.257,20 €-koa da.**

Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Facebook: @HiritarronHarreraSarea Instagram: @harrerarea

Dohaintzak: k.k. ES44 2095 5013 70 9119577666

Beste buletinak kontsultatu nahi izanez gero, hemen dituzu:

<http://www.mugak.eu/news/covid-19-boletines-diarios-de-la-red-ciudadana-de-acogida>

<https://www.gipuzkoasolidarioa.info/hiritarron-harrera-sarrera>